

**CEBEK-EN BATZAR NAGUSIARI AMAIERA
CLAUSURA DE LA ASAMBLEA GENERAL DE CEBEK**

2021-05-12 Bilbao 12-05-2021

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Ahaldun nagusi jauna, Bilboko jarduneko alkatea, sailburua, herri agintari eta herri ordezkariok, eta gaurko honetan bereziki CEBEK-en presidenta berria, CEBEK-en presidente ohia eta arduradun zareten guztiok, kideok, egun on. Eskerrik asko zuen gonbidapenagatik. KONFIANTZA da gaurko hitza.

Konfiantzan oinarritu dira gure arteko harremanak. Konfiantza ezinbestekoa izan zen 2008-ko krisialditik irtetzeko eta ezinbestekoa izango da jasaten ari garen pandemia honen ondorioak gainditzeko.

Gure lehen hitzak, beti bezala, hildako pertsonak eta bere senitartekoak oroitzeko dira. Osasuna bermatzea eta bizitzak salbatzea izan da, eta da, gure zeregin guztiaren lehentasuna.

Egoerak zaila izaten jarraitzen du, baina ITXAROPEN izpi bat badugu. Etengabeko hobekuntzaren bide horri eutsi behar diogu, konfiantza osoarekin.

Konfiantza sortzea da gure helburua, baita ere hazkunderako joera finkatzeko, langabezia murrizten laguntzeko, enpleguaren kalitatea hobetzeko eta beharrezkoak diren etorkizuneko eraldaketak egiteko.

Ibilbide honetan Iñaki Garcinuño-ren ekarpena ESKERTZEN eta AITORTZEN dugu gaurkoan. Konfiantzan oinarritutako harremana izan dugu eta, horri esker aurrera egin dugu, elkarrekin eta elkarlanean, gure gizartearen zerbitzura. Eskerrik asko!

CEBEK inicia una nueva etapa en un momento delicado y difícil.

El coronavirus ha trastocado gravemente nuestra forma de vida y convivencia. En primer término, nuestro día a día sanitario y emocional, porque ante esta pandemia hemos debido anteponer la lucha por preservar la salud pública y la vida.

Esta situación está afectando también a nuestra actividad social y económica.

Una vez más, estamos siendo capaces de RESISTIR. Estoy seguro de que seremos capaces de superar juntos esta nueva prueba. Estoy convencido de que saldremos más fuertes.

En estos momentos la recuperación económica va a avanzar de la mano de la vacunación. En todo caso, me gustaría compartir un poco de LUZ en este largo túnel que nos está tocando cruzar.

La semana pasada prácticamente todos los datos económicos publicados transmitieron una visión POSITIVA.

El Índice de producción industrial en Euskadi se cerró en marzo con un repunte interanual del 12%. Según nuestras previsiones, los datos de abril serán sensiblemente más elevados.

La afiliación a la Seguridad Social en abril aumentó un 0,9% interanual, el PRIMER MES de crecimiento en todo este último año.

La contratación laboral en abril se acercó a los 61.000 contratos firmados y se produjo un fuerte descenso del paro registrado, con una reducción del 8,4% interanual.

La apuesta del Gobierno Vasco y del resto de las Instituciones vascas por reforzar y acelerar la recuperación económica es FIRME. Contamos con recursos y con un presupuesto ambicioso, dotado en el caso del Gobierno Vasco con 770 millones de euros más que el año anterior.

Miramos al futuro con más INVERSIÓN PÚBLICA (incremento del 6,4%) y MÁS GASTO EN I+D (un 9,7% más).

Este año, la inversión pública vasca será superior a los 955 millones de euros y el gasto en I+D alcanzará los 535 millones.

Nuestro compromiso compartido es y vuelve a ser situar la tasa de paro por debajo del 10%, crear MÁS y MEJOR empleo.

Volvemos a subrayar el mismo objetivo que nos une: recuperar TODOS los empleos perdidos.

El objetivo es incorporar 26.000 personas afiliadas más a la Seguridad Social, de forma que alcancemos las 980.000 personas afiliadas con que contábamos en julio de 2008, antes de la crisis financiera y de esta pandemia del coronavirus.

Pandemia honek larriki hondatu ditu gure egunerokotasuna, gure gizarte jarduera eta aktibitate ekonomikoa.

Egoera honi aurre egiteko GAI GARA, zalantzarik gabe. Ziur naiz auzolanari esker egoera hau gaindituko dugula. Ziur naiz indartsuago aterako garela.

Argi dago ekonomiaren susperraldia txertaketa-prozesuaren eskutik etorriko dela. Nolanahi ere, argi pixka bat partekatu nahi nuke gurutzatzen ari garen tunel luze honetan.

Aurreko astean argitaratutako ia datu guztiek, Europan zein Euskadin, ikuspegi positiboa eman zuten. Hazkundera eta enplegua SUSTATZEN ari dira; poliki poliki aurrera goaz.

Helburu hau betetzeko, BERPIZTU Enplegua eta Ekonomia Suspertzeko Programa martxan dugu; eta Euskadi Next proiektua onartu dugu ere.

Honen bidez, erakunde eta enpresa munduaren arteko harremana sendotzen dugu: programak, kudeaketa eta jarraipena etengabeko hobekuntzaren zerbitzura jartzen ditugu.

Oinarri sendoa eta egonkorra dugu, erakundeen aurrekontuak onartu ditugu eta politika ekonomikoa lankidetzaren bidetik kudeatu dugu. Hau da gure EREDUA: giza garapen iraunkorra.

Ante esta situación vamos a mantener y, en la medida de lo posible REFORZAR, nuestras políticas de innovación, internacionalización, inversión, tecnología y digitalización en la empresa y la industria.

La pandemia ha reforzado la idea de que en un mercado global cada empresa compite asentada en el ecosistema económico del que forma parte.

Nuestra tarjeta de presentación es un ecosistema científico-tecnológico, empresarial e institucional que cuenta con SOLVENCIA, capacidad de decisión y una estrategia compartida. CEBEK ha sido un activo en el fortalecimiento de nuestro ecosistema empresarial.

Ahora, sabemos que nada será como antes de la crisis. Todo ha cambiado y seguirá cambiando. Berpiztu o Euskadi Next nos han permitido volver a compartir diagnóstico y estrategia, SUMAR fuerzas, seleccionar los sectores estratégicos para liderar la transformación verde, digital y social que afrontamos en toda Europa.

La clave es centrar el esfuerzo en asentar el crecimiento y generar oportunidades de empleo.

Gracias a CEBEK y a todas las empresas por arriesgar e INVERTIR, por mantener la actividad y PERSEVERAR, por garantizar el arraigo y el EMPLEO en momentos tan difíciles. Este es el bien común que compartimos.

Gracias, también, por contribuir a sacar adelante Euskadi Next, el proyecto que va a impulsar la transformación verde, digital y social de Euskadi en el horizonte 2030.

Datorren astean “Euskadi Next” Berreskurapen, Eraldaketaren eta Erresilientziaren euskal programaren bertsio berria aurkeztuko dugu.

Auzolanaren garaia da, elkarrekin eraikitzeko garaia da, lehenbailehen gure ekonomiaren INDAR GUZTIA berreskuratzeko garaia.

Enpresa lehiakorrak nahi ditugu, teknologikoak, digitalak eta berritzaileak. Hori ere, bada, BERPIZTU eta EUSKADI NEXT.

Bide honetan eskainitako laguntza eskertzen dizuegu; gaur, bereziki, Iñaki Garcinuño-ren eta bere lantalde lana aitortuz eta gaur bereziki ere, Carolina Perez Toledo eta bere lantalde berriari ongi etorria emanez.

Zorionak guztioi eta eskerrik asko!